

"Lege haundizko zauriak bi gisatakoak izan litezke, bata zabalik eta eginberriak, edo zahartuak, ustelduak, uderra eginik, sorne edo odol ustela dariotenak, eta ezpata ukaldiz, sakon eta zabal saihetsean legeak dion neurriko ta luzetasu-nekoa.

Bigarrena da zauri zerratua, hetsia, itsua eta halakoxeak dira azote, haga eta besteren ukaldikoe emana eta ezagunenak dira beren orbain, ubel, uspel, belztasunetik, bai eta kontra-ukaldi horiek ere kalamitate edo helgaitz izendatuak (XVII.artikulua, 333)"

Jarraitzen du luzaz Bela-k esaten bi zauri motak ez direla legearen aldetik berdin zauritua ordaintzeko orduan, eta desberdintasuna haundiago dela desleialtasunez zauritu denean jendea.

Sendakuntzarekin zuzenki ikustekorik ez duten arren, zauritua eta zauritzailea auzietara behar dutenean, aurretik leku bereizi batzuetarako eliza ta ermitetara zin egitera jo behar dutela:

"Mauletik behera dauden herrientzat Arübeko Doneztebe elizara Arbaillakoentzako Idaunzeko Jon Done Petirin, Zuberoa soberanokoentzat Zibozeko San Martinen, baina Lextarre (Maule ondoko) Korteak nahí izan ezkeru, lege zin hori bere Lextarreko Donibane ermitan har dezake, Korte erabakiren baten arauera.

"Zin hau lotua dago eta bereziki aipatu kasuetan (leialak eta lege haundikoak) kasuetan zauritzailea, kolpatazalea ta zauritua beren zinetan sinetsiak direlarik" (XX. art. edo 336.)

Ohitura horren jatorria bitxia dirudi:

"Badirudi zin egiteko ohitura hori ta kasu kortarakoa Egiptotik ateratu zela". (XX. art. edo 336.)

Foruaren uzta xuhur honi hau bakarrik gainera genezake, legehauste zena:

"Arau honek, gorago esan dudana, sendotzen du, gure foruak horniduretz diona eta hedatzen dena **eri ta behartsu direnei esnea** ukatu dietenei herrian bizi direnen hazkurri (art.111 edo 127)"

Horiek guztiek erakusten dutena Osakidetza garai hailetan osoki Elizaren bizkar zegoela, behartsuak sendatu behar zirenean, asko oraindik ere Frantzian behintzat kaletan egiten diren eskeak Karitate zahar horren ondokoa izan; forua bakarrik, hauzetara joan zitekean borroka zauria kontutan hartzen zuen gehienbat".

2. Zauriaren ordaintsaria, Bela-ren arauera.

"Ohitura zaharrez, hogei sos, hogei Morlas-eko sosen ordaintzeko zina, Arübeko Jon Donezteben elizan egin behar dute Mauletik iparraldean bizi direnak, Idaunzeko Jon Done Petirin Arbaillakoek, Zuberoa betekoek Zibozeko Jon Done Martiñen, baina Leixtarre-ko hauzitegiak bere Leixtarreko Donibane kaperan har detzazke hola erabaki baldin badu" (216. orr.)

3. Zuberoako foruaren aipamen batez iruzkin bitxia: gizaragi jaleak.

"giza haragia jaten dutenak basati hutsak dira, jainkoaren ezagutzik gabekoak. Ongi bizitu diren jendeen gorpuek, mortes justae sepulture tradentur ne corpora aut ossa eorum

detineantur aut vexenter, zeren mundu hontako gauzak gizon bizientzat badira zentzugabekeria lizateke hil ondoren bere irudiko gizonen bazka izan ledin (370. orr.)

3. Sendagileen erantzunbehar ta berengaintasunaz, hauzigai ditekian ezaugarriaz.

"Beharrunearentzat da medikua esan nahi baita, beharrezko ta behargarri dituen gauzen gainean poterea daukala, aipatutako zauri edo gaitz baten sendatzeko. Medikuak oker ezagutu badu edo gaitza ez ezagutu epaileak (sic) ogena zuzendu dezake.


4. Moralazko aipamen batean sendakuntzazko irudi ona.

"Hobe da gaitzari oztopo ta eragozpen egiteko aurea hartzea ezen ez etorriko denean erremedio bat itxarotea gaitz haren kentzeko"

Egia ederra baina gaurko sendakuntzan - garestiegiz - aplikatzen ez dena.

XVIII. MENDEKO ZUBEROTAR IRRI-ANTZERKI: ASTOLASTER BATZUTAN

Sendagin eta sendakuntza, asto-lasterretan.



HERRI SENDAKUNTZAREN LEKUKOTASUN TA IRITZI

Zubereraz badaude, dozena bat astolaster frantses iraultza baino lehen eginak. Horien komika baliapideak "frantses esaera erabiltzekotan "gerritik beherakoak" izanki, holaxen medikuntzaren, garaiko erakuspenak, baditugu, bost ekintzentzat behintzat: aiuta, sangratzea, haur sortzea, haur galeraztea, baztanga ta txertatzea.

Lehenbiziko bi ekintzak parre eragiteko erabiliak dira, gero haur sortzeak edo izorra izateak irri-parretxoa eginarazten badu, haur galeraztea oso gaizki ikusia da: astolaster bat

norbaiten aurka egiteko aitzakia zen. Holako antzerkia izan ondoren, presondegitik ateratzea baino gehiago zitekean, ezen hala aipatua izan zena ez baitzen, ezin baitzuen herrian bizitzen jarraitu.

1. Bi erremediatze, aiuta ta zain ebakitze: Malku ta Malkulina, astolasterrean.

Lehenik hasten da baztangaren aipamena jakingarriaz:

Barbera **348** **Ai ei eta anderea
pikotak heltü zeitzü
ageri düützü elkiten
biloa bezain üsü**

Arieder **349** **Jauna ez düzü posible
ez dit pikotarik
txartatürük nüzü, mila aldiz
bi azpien artetik.**

Larru ospelez, ubelez beterik duen andereak, nafarrerria, baztanga daukala, uste du barberuak. Andereak inardesten dio ezin dela izan, txertatua izan delako, askotan. Naski Jenner-ek 1796.an bakunazioa asmatu arte baztangaren kutsua ematen zen zuzenka; halere XVIII. mendean "pikotak", ehun gaixoetatik hamar hiltzen zuen. Albiste jakingarria da Arieder-en ahoan, ezen entzule guztiek bazekiten "txertatzea" zer zen.

Halere parre antzerkia den ezkerro deskribapena komikora desbidetua dago ta Arieder-ek dio, "bi azpien artetik", bi izterren artetik hartu duela txertoa, askotan. Mila aldiz diotanean, beste zeraz ari da hitzegiten, baina baztangak, behin ta berriro eskatzen zuen bakunazioa, kutsu sakabanatzea, izurritea zelarik. Orain badirudi, mundu guztitik galdu dela gaitz hori.. esan nahi dut baztanga.

Barberuak jarraitzen du, ukaldi ubelduraz, ospelez dela orbaindua ikusten baitu.

Barbera **350** **Ai ei eta oro kolpüz
bat eginik zira
orai e'nüzü segürki
adesara bezain fida.**

351 **Behar zünüke orai
sangre bat zankotik
ezpadüzü odola
arras harritürük.**

Barbera **352** **Anderea ez zeizü elkiten
batere odolik
behar dizugü pentsatü
beste erremediorik.**

353 **Bizpalaur aiuta hartüz
bihar arte huntan
haiek kurriarazi lirozie
odola zaiñetan.**

354 **Zeren zure odola
beita gatzatürük
harentako eztüzü
beste erremediorik.**

Hemen ikusten denez zaina ebakitzen da oinean edo zangoan eta kasu honetan odola "harritua, gatzatua" daukala dio Barberuak; gaur hitz berdinak erabiltzen ditu herriak "odola lodiegi dü" erraiten dutelarik errezegi baita kasu batzutan gatzatzen, edo kolesterola daukatenean ere. Aiutaren

erremedioa da zain ebakitzearen ordain., eta bereziki ez da goxoa, ukaldiak hartu ondoren horien pairatzea.

Zainebakitzearen ondorioak eta ondokoak ez dira halaxe galtzen; XVIII. mendean egiten zen **talka-zainen** ebakitzea ez da gehiago egiten oso arrixkutsua zelako.

Zain kapilarien, xeheenen, meheenen ebakitzea, **ben-tosekin** oraindik apur bat egiten da, larrua aurretik zarramikatzuz, bentosa ipintzean larruak odol gal dezan, duela berrogei bat urte Zuberoan oraindik egiten ziren; garai berean eta geroztik ere zizainen (**izainen**) ipintzea egiten zen eta orduan zizare haiek zuten odola xurgatzen, betetu arte, eta odol metatzearen aringarri ziren. Duela hogeit bat urte apur bat baztertu ziren, alegia, mikrobioak eman ditzaketela, odolaren hartzeko ozka dagitenean; benetan, garbian haziak izan ezkerro ez dago arrixkurik. Gainera bere ahoko listuarekin odolarien gatzatzea eragozten zuen. Badirudi herri batzutan berriz erabiltzen dela, azken bertute hau kontutan harturik.

Zainen ebakitzea edo flebotomia, besoan, ukondo pleguan, eskuan edo oineko safena batean egin liteke berrehun bat gramo odol hartzen delarik. Bazter erabilka bilakatu da, erabilka nagusi eta tirano izan den hori, XVIII. mendean.

"Odolaren garbitzeko" ustea herrian oso zabaldua da, gure guraso euskaldunek Parisen **aiutak** egiten zizkiguten eta ez bakarrik sabel gogorreria sendatzeko (oraindik hor-tarako tresneria daukagu ontzi-tutu-xirringa ta guzti). Gure lehengusina den Maddalen Carricaburu, Ligin jaiok dio hila-betean behin bere burua purgatzen duela - ahotik orain - odolaren garbitzeko.

Baina Arieder, antzerkiko notina, ubelez ospelez josia denak ez du bere barberuarekin bukatu

Barbera **355** **Jente horietarik
bizpahirur etxekiek (lotzaile)
andere behar ginizketzü
ez bazina ahalke. (lotsa)**

Arieder **356** **Jauna ez dit batere
etxekizale beharrük
nihaur egonen nüzü
üzkü z gora jarririk.**

Barbera **357** **Alo arren anderea
zü k bihotza hon düzü
prepara zite berhala
ni orain prest nüzü.**

Hemen agertzen da, beste lekukotasunetan bezala eus-leak, lotzaileak bazirela, gaixoa mubi ez zedin, eta kemena (bihotza) eduki behar zela. Geuk pentsa genezake bihotz gehiago behar zitekela holako zain ebakitze batentzat, baina badirudi aiuta ez zela hain goxoa - egia da ez zutela geuk ezagutu dugun tresneriarekin egiten - baina klistera "xirringa" gogor batekin.

Gero, jarraitzean herri-komikoaren baliapide bat da, ez dela zuloz ekibokatu behar eta gaixoak "eriak" berak barberuari laguntzen dio egiten

Emaitearekin Arieder mintza

Arieder **358** **Jauna xilo hori
aise atzeman düzü
horren gañeko briulet
txipi hori düzü**

Barbera 359 **Zaude ükürü (geldi) anderea atzemanen dit behala nihaurek ere ez zela hain handi banizün, bai, beldürra.**

360 **Zoaza anderea horraxene ohearen gai(ne)ra eta ni jin artino egon han üzüz gora.**

Arieder erretira

361 **Jente honak ikusi düzüene operazionea nola hatzeman deodan xilo txipiñi hura.**

362 **Bena, orai han beütükaka ezin atxikiz ontziaren paratzera joan behar niz.**

Ondoko ahapaldietan esaten zaigu zergatik lotzaileak behar diren, jendea ez baita geldirik egoten eta arrixkatzen baitu zauritzea, xirringa moskoarekin. Gero, ordukotz "ipurtontzi"en erabilera bazegoela ikasten dugu. Osasunarekin ezer ez dutelako ikustekorik ez ditugu, astolaster guztietan irakur ditezken kakalogiazko aipamenak emango, horiek luzarago ikertu genituen (**Antzerti**-n "Komiko ballapideak Zuberoako herri-literaturan" Donostia 1985.)

Emakume izorraz eta izorratuaz badago trufa ugari, herri antzerki horietan eta Barberuak ere bere merezimenduak aipatzean gai hortaz txantxetan dio

Barbera 312 **Bizkitartean ikusi dit malür heltzen haregatik xirringa mokoa sartürrik kontrako xilotik**

313 **Ikusi dit hartarrik inkropisia (sic) lotzen eta bederatzi hilabete ez erremediatzen.**

314 **Operazione garratza ez deia hori otean, sekülan ez da behar ezarri hatza düen xiloan.**

Beste horrenbeste bada **Marzelina ta Xiberoa** astolasterrean baina hor Marzelinak, izorraldiak errepikatzen ditu, mutil berri guztiez gogutzen baita. Berdin **Pierrot eta Xarrot** emazteak senarra jo duenean.

2. Berrero ere aiuta ta zain ebakitze: kaniko ta Beltxitina astolasterrean.

Hemen Kaniko gizona da kolpez handiturik ospelez estalirik dagoena eta "beltx airia" baduena hainbestez, eta aurreko joku berdina hasten:

(Barberak so egin eta mintza)

Barbera 309 **Orano ez nüan ikusi kolpü horien parerik areta, ene denboran zombait eri bisitatü dit.**

310 **Sangre bat behar düzü lehenik zankotik**

odola behera eraits dakizün bürütik.

Kasu honetan zain ebakitzetik odola dario kolpatuak, "zankotik" beti, baina garaian ohitura zenez odolaren garbitzeko bi erremediatze egiten ziren:

(Seiña eta mintza)

311 **Orano zure odola alteratürrik da biziki beldür nüzü erremedio eztügün orano aski**

312 **Labamentü bat behar zünüke odolaren freskatzeko eta ez heben lagünik haren emaiteko.**

Kaniko 313 **Jauna ez dit nahi ihor ere lagünik; nihaur egonen nüzü hortxe üzüz gora jarririk.**

Ahapaldi horietan aiutaren eskaintza berdina dago, eta lotzaileena ere, ukatua dena. Jakingarria beste antzerkian "Malku ta Malkulina" delakoan bezala Kaniko-k hitzegiten duela. Egile, idazle berdina? Eta ondoko ahapaldiak ere berdinak bait dira, arauetz, bata bestearen ahizpa bikia da.

Barbera 314 **Alo arren Jauna zük bihotza hon düzü denborarik galdü gabe hartü behar düzü**
(Eman aiuta)

Kaniko 315 **Aiei, aiei Jauna ez düzü kausitzen xiloa; ifernüan erre balitz xirringa horren mokoa!**

Beste aipamenean bezala, hemen, bihoztoi izan behar da aiuta pairatzea, ez zuen goxoa izan behar, eta guztien gain barberoa zuloz ekibokatzen delarik

Barbera 316 **Zaude ekürü, arren kilika düzü üzükia! Suhartüren zaizü ziloa gizon mila debrüa!**

3. Aiutaren deskribapen luzea: Planta ta Eleonora astolasterrean.

Aiuta, badirudi, komiko ballapide gisa entzule ta ikusle ziren zuberotarrei asko gustatzen zitzaizela - gizonen parre gorriak eta andereen lotsazko irri-parreak - ta astolaster gehienetan nonbait agertzen dela:

Barbera mütila

523 **Beste hanitx ere kolikak zapartatzen dütü kristel baten gabean süfritzen hanitx türmentü**
(Xirringa har)

524 **Imur gaiztoen sendotzeko instrümenta haur düzüela etxeetan behar zünükie orok holako bedera.**

Hona mutila, morroina klistera erakutsiz haren merezimenduak goretzen "orok holako bedera" "denok holako

bana" behar luketela, bestelan kolikaz zapartatzen direla. Anez Elgoihen "Arrako" Santa Graziko zioetan aintziñakoen-tzat kezka handia zela, "kolika" eta hartarik hiltzen zela jente hanitx. Izen hori oso orokorra dirudi barruko min latzen adierazteko.

Barberu mutilak jarraitzen du, nola erabili behar den, argituz:

- 525 Bena ez da aski**
instrümentaren ükeitea
orano behar da jakin
zerbütatzeko manerea.
- 526 Lehenik behar da jente honak**
labamentüa prestatü
eta prestatü denean
bürü huntarik sartü
- 527 Hüstü denean gero**
holaxetto ezarri
eta Xirringa sartü
gero gibel aldetik
- 528 Uzkü-xilotik sartü ondoan**
hulaxetto pusatü,
ene gain bere egin bidea
hunek egiten ez badü

Hemen bukatzen da mintzaldi moztu hau eta astolasterra ere. Naski testu hortan falta dira jokulariek, antzeslariek zegizkiten kiñu, ihakin ta mimika guztiak eta naski burdinezko "kristel" aiuta egiteko tresneria zaharra. Jestuez kanpo naski, hitz batzuek parrea eragiten dute hala nola bizpahiru aldiz **üzküz gora**, "ipurdiz gora", eta askotan **üzkü-xilo**, "ipurtxulo".

4. Haur galtzeaz, haur egoispen edo galerazteaz

4.1. Ardeatina ta Ludovina, astolasterrean: haur galeraztea

- Ardeatina **26 Düela zerbait denbora**
ikusi züntündan izorra
eta orai aldiz
ontsa meherik sabela.
- 27 Aperentziak manatzen dizüe**
haurra galerazi düzüla
ez denaz geroz izan etxen
Graziusa emagina
- 28 Ahalke gabea banakiña**
haurra gal'erazi düala
nahi hait salatü
Erregeren Proküradoreagana.

Naski 26. ahapaldiak erakusten digu nola andereek elkarren sabelari begiratzen zuten eta 27. jakiten dugu haur galeraztea, behintzat, emaginek ez zutela egiten. 28. gaizki ikusia ta justiziara salatua zela abortua ikusten dugu, eta Ardeatinak Ludovina salatuko duela eta jarraitzen du

- Ardeatina **29 Denbora lüzerik gabe**
hartürük izanen hiz
baita presondegian ontsa
bürdüiñaz kargatürük.
- 30 Malerusa behar dün ontsa**
orhitü hire denboraz

garrazki pünitürük hizate
egin dünan malürüz.

31 Falta egileak behar diñ mündü hontan etsekütatü Jaun Kroketek behar hai ontsa eskürastatü:

Ardeatinak Ludovinari diona da, lehenik lotsa (ahalkea) bizkarreratuko zaiola, gero hespetxean sartuko dutela eta azkenik lepoa moztuko diotela "Jaun Kroketek .eskürastatü). Ludovina-k salapena ekiditen du esanaz Proküradorearen adiskide mina dela. Urruntxeago beste aipamen bat dago haur galerazte ta izorratzeaz, hemezortzigarren mende hasieran? Ardeatinaren ahotik.

50 Emazte zaharrek züek ez egin holakorik züen gaztetarzünean ere pratikatzen ziren horik

Ardeatinak jarraitzen du beste behin, moralaren aldetik eta abortua ukatuaz

- Ludovina **57 Ezta disimulatzerik**
gaüza heltü düzü
eta nabaski orai
haur minetara noazü

Ardeatina **58 Ludovina aleta nik**
ez zütüt lagüntüren
ez dit eskürük ez
zure maltapean ezarriren.

59 Ludovina zoaza kanbaralat marka egitera eta pusa ninito hori jalki dadin kanpoalat.

Azkenean Ludovinak haur bat sortu behar du.

4.2. Bubane ta xiloberde, astolasterrean. Haur jaiotza

Beste astolaster hontan sortze baten erakuspena badugu

- Bubane **112 Etxerat ützüli nintzan**
emaginarekin
emaztea ediren nüan
haurra sortürük mütilarekin

"Erretira, Jalki Paket eta Xiloberde haurraren ükeitera. **Egin faizoa.** Xiloberde mintza)

- Bubane **113 Aiei, aiei otoi**
lagünt nezazü Paket
(Paket mintza)
Orai ez zirade ez
egitean bezain laket.

114 Orai libre zirade jinkoa dela laidatü zure sabelak behar dizü ene zintürüz trozatü (Troza)

Bertso horietan ikusten da, haur sortu ondoren oihal gerriko batekin sabela trinkatzen zietela erdiberriei eta ez dirudi etzanik zeudela. Jarririk (eserita) ala zutik erditzen zirelarik andereak

115 Xiloberde lot zite orai eni leptok

**Bürüzagia jin gabe
ken gitian hebenik.**
(Har emaztea besoetan eta mintza)

- 116 Hots emazü oherat
eta har koraje
saldo ekarriren deizüt
oren erdi bat gabe.**

(Ereman oherat. Emagina eta Bubane jin haurragana eta mintza)

- 117 Soizü, soizü Bubane
haurra non den sortürrik
eta oihalto batez
ederki trozatürrik.**

Bai, Paket, mutilak emaztea besoetan har eta ohera darama, ez baitzen etzanik haurra sortzean. Etzan ondoren ez zitzaion jatera ematen baina salda bat edanerazten. Badakigü ere haur jaioberria oihal bakar batek inguratuturik troxatua zela.

4.3. Beste jaiotze baten deskribapena: Pierrot eta Xarrot astolasterrean.

Haurra norena den eztabaida bat sortzen da bi amoreen artean eta horren paradan jakiten dugu haurra erditzeko andereak jeikitzen zirela

- 253 Xarrot Aiei! aiei Pierrot
hanix gaizto dit trenpüa!
inposiblezki gaur
sortü behar dit hümea.**

- 254 Otoi jeiki zite
eta sü handi bat egin
hartan berotzera
ni ere jeiki nadin.**

- 255 Pierrot Zük eztüzü orano
beterik tenorea
edo bestelan haurra
ez dükezü enea.**

- 256 Gure lanean hasteak
bazakit zenbat düen,
bai eta haurrak jiteko
zenbat denbora behar düen.**

- 260 Aphata Gizona zer mintzo zirade?
ützazü jeikitsera
Ez düzü beste baten berdin
oraiko horren afera.**

- 261 Tenorean edo gabe
sartüak behar dü elki
aments! libro ützezazü
nahi bada jeiki!**

Termañua gabe haurren jaiotzeaz aipamena badago

- 274 Bazillize (Pierroten ama)
Ez dela haurra hirea
ez dezala har бүрүan!
Emazteek berdin sortzen ' dütie
zazpi hilabetetan.**

Haur askoren edukitzeko bildurra azaltzen da Pierroten ahoan

- 369 Pierrot Zer behar dütik egin?
haur da ezin bestea!
Ukürü egon behar dütik edo
hurrez bete etxea?**

- 371 Orai determinatü dütik
hain hon dütik pairatzea
ezi ez familia ezin haziz
peko erreka joitea.**

Gero haurrik ez edukitzeko Pierrot-ek erabaki xixtema ez da oso berria, ez agian eraginkorra, etxean "barur" eta kanpoan "jan".

- 372 Behar dit apart egon
emaztearen ohetik
eginen badüt ere
zenbait aldi lo güti.**

- 373 Jiten bazait builta
ezin egonezko bat
joanen nüzü ene adiskide
zahar haietarat.**

4.5. Malku ta Malkulina astolasterrean: haur galeraztea

Antzerki hortan ere, Malkulina zoritxarrekoak kontatzen digu nola hirur irtenbide dituzten anderezkoek: puntxela izatea, izorra izatea libretuz, edota libretitu arren sekulan haurrik ez izatea (arrosa elorri gabe):

- Malkulina **254 Al ez deia malerus
emazteen zortea
izan behar puntzela
edo tripa betea?**

- 255 Nik aldiz hainbesteetan
entzün dit zaharretarik
eta konfüsionetan orai
izan behar düta nik.?**

- 256 Bizkitartean bada zonbeit
arrosa elorri gabe
ez beitira gaizki heltzen
libretitürrik ere.**

- 257 Haien zortea da
mündü orotan üros
atzeptatzen ahal beitüe
parada düten oroz.**

- 258 Bena ontsa gostürrik
parada üken ondoan
haur da hantüra tristea
düdana korpützean.**

Oraintxe Malkulina, bere buruzagiaren gandik izorra dena, harek errefusatzan duenean ezkontza haur galeraztea gogoan sartzen zaio:

- 287 Zerbeit gisaz nik hura
behar dütik jauzerazi
haren lotsarik gabe
nahi nüzü trankil bizi.**

Malkulinak seksu harremanez eta agian alarguna delako ta herriak gaizki ikusten baitu alargun-ezkontza bat, Malkulinak harreman horietaz eritzi txarra dauka, eskarmen-tuek erakutsirik:

- 389 Usatzeak emaiten dü
errabia (amorrü) handia**

**Jinkoak begira "baba"la
kostumatü izaitea.**

Nahiz Barberua agertu antzerki hontan, ez da astolaste-
rrean Ardeatina ta Ludovina-n bezalako gizarte eztabaidarik
haur galerazteari buruz, - baldin ez bada galdua izan - baina
antzerkiaren jarraipenean Malkulina ez da gehiago izorra
agertzen ez eta haurdun.

**5. Medikuntza testu luzeena: Phantartz, ihautiri kome-
rian.**

Testu horrek jakingarri duena da garaiko hirur legezko
sendagileak agertzen direlako, barbera, medezia (medikua),
apotikaidea eta tartekaturik herri-sendakuntzaren aipamena
baitago.

Ur edateak "xixariak" ematen dituelako herri sinestea
agertzen da, ta holako animalerik ez dagoela ardoan. Baküs-
i emazteak eman diolako

**188 "Vino de carnela
erreka hortan hartürik**

Eta hasten da zinkurinkaz

**191 Ai ei Ase zitie ase
ene erxetako xixariak
Borogatzen düt jan hüillen
diztadatzuela erdiak!**

Bai dio, xixariak haren esteak jaten dituztela eta frogatzen
duela jan urren (urbil) dituztela erdiak, hau beste herri sines-
tea xixariak erxea (estea) jaten duela. Horregatik Bakusek
barbera medezia ta apotikairiak deitzen ditu.

Barbera azaltzen delarik esaten du non ikasi duen eta
garaiko emigranteen berri ematen, Bordelen ikasia ta
Chartres-en aprobatua Barberak ez du fakultate batean ika-
si baina berak dion gisa "Tour de France" a eginaz, bai,
Pariseraino.

**196 Bordelen sartü nintzan
aprendizajearen egiten,
eta aprobatü izan nintzan
hantik sarri Chartres-en.**

Gero bere gaitasunaren erakusteko, bi gauza egingo ditu
lehenik Erregeren sigilua erakutsiko, gero lehen gaixoa doha-
nik artatuko:

Barbera **203 Fabülaz mintzo nizala
ez dezazüela pentsa
ezi so'egizüe non düdan
erregeren kaxeta.**

**204 Ez düzüela beldürrik
emaiteko paküaren
lehen operazionea
dohainik düt eginen.**

Bakus aurkezten denean bisitara, kontsultara, izuak
eman ohi dituen psiko-ezaugarriak ditu, alkoholarenak ere:

Bakus : **Ikara ekürü batek
iragan aspaldian
atakatzen nizü
segürki korpützean**

Holako ikarak gertatzen dira bihotzeko minetan bai eta
laurpabost ardo pinta egunean edaten dutenetan. Halako

ezaguketa bat egiten dio Barberak, frantses oker batean
"aploproxia" daukala diolarik.

Apoplexia horren ezaugarriekin "barberak", eskatzen du
"medezia"ren laguntza, sendagileen katea abiatuz:

Barbera **210 Medezi bat behar düzü
txerka erazi mementüan
Nesesari haundian zira
orai ene üdürian.**

Badirudi gaurko medikuek gaurko zuberotar nekazariekin
daukaten eztabaida berdina Bakus eta Barberaren artean
entzuten dela, Barbera sasi-frantsesean eta Baküs-ek asper-
tükrik diola ere beregisako erdara bitxian:

**214 Tout le(s) medecin(s) et chirurgi(e)n
qui dit que le vein (sic) fait du mal
je vous dir(ai) franchement
que se (sic) sont des barbouillants"**

(Ardoa txarra dela dioten
mediku ta barberoez
esango dizuet argiro
kalapitari hutsak direla. itzulpen)

Medikuaren agerkuntza

Bere antzearen goraiapamena egiten hasten da

**228 Ez da korpützaren barnen
parte hain txipirik
zoin zer gisaz daudien
nik ontsa ez dakidanik**

Fantesiako bisita egiten dio, naski esanaz Bakusek biri-
kak bizkarezurrari loturik dauzkala ta tripak meakari, baina
garai hartako eta orain ikusten den moduan, medikutik kirur-
gilariaren arteko txandakak jarraitzen du betiko erremedio
aspergarrira itzultzeko, zain ebakitzerara:

Medezia **232 Masa bat eginik izan düzü
zure korpützaren barnean
barber bat behar düzü
seinatzeko mementüan.**

Eta medikuak barberari ematen dizkio aginduak, beti fan-
tesiazkoak noski; hemen, ordea, orainarte irakurri ez dugun
besoko zain ebakitzea dago:

**234 Hoge ta laur libera odol
idek'ezozü besotik
eta aski ez bada
beste hainbeste zankotik.**

Baküs-i berriro ardo edatea debekaturik, Barberuak hi-
tzegiten du; eta odolaren miratzeaz hitzegiten.:

Barbera **238 Presta ezazü besoa
behar düt seiñatü.
Odoletik ezagütüren dit
behar düzünez zapartatü.**

Bera Baküs delako edo beste batzuei gertatzen zaiztela-
ko zainebakitua alditxartzera hurbil dago, "engojatzera":

**240 Aiei! Aiei! Bihotza
engojatzera noa!
Emadazüe trago bat
ürrentü ez bada ardoa!**

Hemen agertzen da ere zainebakitetik kanpo tisana
badagoela apoplexiaren sendagailu:

Medezia **241 Jauna lehenengo tisana edan ezazü ezi zure eritarzünaren ardoa kontre düzü.**

Baküs eriak, gaurko gizon zahar batzuen antzera ez du onartzen sendagile horien erabakia; eta herrian askotan entzuten den aitzakiarekin, medikuek ardoa debekatzen dutela ta berek edaten, eriez, gaixoez parre eginaz:

Baküs **242 Medezia, barber eta apotikairiak jauz dazkitziela sabeleko erxeak!**

243 Eni (h)ura ordena zühauriek ardo edan. Eder zaizezüe erria jaunak daigün egünetan!
(Barberak hunki foltsüa)

Barberak poltsuaren hukitzeko erabilka darabil sukarraren ezagutzeko, bide errezenez:

Barbera **244 Jaun hunek orano badü fiebra haundi bat Barnea teütürik dizü, behar dizü pürga bat.**

Komeria diren ahapaldi horietan teknikak agertzen zaizki-gu baina uztarik ederrera, ondotik ematen den purga konposaketa osoa da (Euskarazko errezeta zaharrena ote? 1787.koa nonbait.)

Medikuak hitzegiten du ta barberak idazten.
(Medezia mintza. Barberak izkiriba)

Medezia **245 Zoaza potikaireagana bertan drogen txerkara Izkiribüz har itzazü eta joan lasterka.**

246 Sena-Kasa hobenetik Rübärba eta Agarik, Eskamonea, Aloe Polipoda eta Turbit.

247 Hermodate Mexoakan eta Xalap harekilan behar düzü orotarik aments libera bedera.

248 Zeren eta eri honek korpütz haundia beütü, drogak ere hala hala arrazunable behar dü.

Barbera **249 Banoa mementüan zeren eta lehia den ezi ene ustez eri haur sarri da zapartatüren.**

Purga errezeta hori sakontzeak merezi du, lehen begiukaldian, orainarte erabilietako belar batzu agertzen baitira, nahiz bakoitzetik libera bat eskatu, gaixoa gizon erraldoia dela Baküs suposatzen baitu.

Senekasa izenarekin agertzen da, farmazia izenez Sene dena ta botanikan **Cassia angustifolia** Vahl. Indietatik, Somalietatik ta Arabiatik zetorren gehien bat gai hori. Gaur ere asko erabiliak dira zuhaixka horren ostoa igartuak purgak egiteko, barruan dituzten antrakinsonak dira eragingarriak. (Cesalpineia familiakoa)

Rübärba, berriz, **Rheum rhabarbarum** ostoa zabal eta pozoiniduna dauka; ostoa horren kirtenak, buztanak sendagailu apur bat badu eta marmelada egiten da haiekin, baina erroak, sustraiak du antrakinsona purgatzailer gehienik. Hamaseigarren menderaino oso garestia zen landarea gure baratzetara sartu arte. Purgatzeaz kanpo xixarien, este xixarien aurkako eragina badu, gosea zorrozteko ere bai. (Poligonazea familikoa)

Eskamonea, Cynanchum sp. Lore usaindun landarea da; loreak arrosa edo txuri ditu eta urondoetan sortzen da, belar igotzailea da. (Asklepiadazeoa) Eskamonea, Cynanchum moeta bat da. Orain ez da erabiltzen purgetan.

Aloe, botanika izenez **Aloe ferox** Mill. Karaibetan ta Hego Afrikan aurkitzen da gehien bat. Bere ostoa udaren bukaeran biltzen dira, euren zumua ateratzen, gero egosiz konzentratzen. Hoztu ondoren gogortzen da hori da aloea, ekai beltz ta garratza. Beste purgagaien moduan heterosida antrakinsonikoak dauzka. Legortzearekin belztu egiten da. Purgatzea ta sabel-idorteak sendatzeko oraindik ipintzen da erremedioetan. Zaurien gainean ipini diteke, minen orbanzeko.

Polipoda, iratze mota ezaguna da, harresi ta zuhaitz zaharretan sortzen dena, euskaraz **Haritz-iratze** latinez **Polypodium vulgare L.** Aintziñatetik ezaguna da bere behazunaren gaineko indarra gatik, zizareak "xixariak" ohiltzen eta galerazten dituelako. Usain zatarrak izan arren, zaporeaz erregaliza gogoratzen du, apur bat garratzago; lurazpiko errizoma legortua da erabilgarria ostoa baino: bere konposaketa da gehien bat, tanino, saponosido, gatz mineral ta muzilaia. (Polipodiazea familia)

Turbit, belarra baino, landaretatik ateratako ekaiei ematen zen izena, denak purgatzailer zirenak gutxi edo asko; belarren artean holako eragina zeukan ezagunena eta agian hor dagoena da **Ipomea turpethum**. Belar horiek lore eder haundi batzuk dituzte, gure eskerte (lürhüntz) delakoen antzekoak; landare igokari eder horiei "volubilis" izen ederra ematen zaiete.

Mexoakan ta **Xalap**, asmatutako izenak badirudite ere, aurreko Turbit-aren gisa Konbolbulazeo familiakoak dira. **Xalap** txuria da ta **Mexoakan** mota beltza, baina belarrak haina ekaiek dira, zeren ez baita oraindik ondo zehaztu zer belar mota zen. Nolanahi ere Turbita ere gaurko erabiltzetatik baztertuak izan dira.

Hermodate edo **Hermodactes** izenak aurretik aipatu bi belarren askazigoa estaltzen du, ez dugu uste **Hermodactylus** beste belar bat ditekenik. Littré frantses hiztegiak, aintziñako hizkuntza kontutan hartzen duenak dio **Hermodatte, Hermodacte**, Asiaerdiko tuberkulutatik ateratako purga dela ez baitu ematen Mexoakan-en aurretik baitator beste belar bat denik ala ez. Beste bat balitz ere, ez erabiltzeak senda-belarzaileen jakinmina kendu dio.

Agarik izenez azaltzen zaiguna ez da belarra, ez landare baina itsas algetatik ateratzen dena eta gaur hainbeste erabiltzen aurretik prestatu janarietan muzilaiaren egiteko. Izen hori Indonesiatik etorri zaigu eta hango **malaieratik** jatorriz **agar-agar** izenaren errepikapenak plurala ematen baitu hango hizkuntzeetan.

Hede txiki batzuen itxurapean aurkitzen da lehenik eta ur irakian ipiñi ondoren muzilaia edo like bat ematen marmela-

da, saltsa ta aurretik adelatu "kremetan" erabiltzen dena; bakteriologian mikrobioen bizi sustrai edo oinarritzko ekai bezala erabiltzen da ta erabili dugu, ikasle ta irakasle ginelarik jakintza horietan.

Hemen ordea, gure errezetan purgatzaille moduan azaltzen zaigu ta egia da litroka hamar bat gramo bakarrik sartu ezkerero eragin ona duela hesteetan.

Egia da errezeta horren irakurtzea ez dela batere erreza, geronek Pantzarten testuak (Marzelina ta Recoquillarten moduan) aspaldian eskuz aldatuak genituela, baina inoiz ez dugu lehenbiziko kopia topatu: beharbada irakurri duguna hirugarren edo laugarren irakurketa zen, halere Agorik / agarik, Turbit / turbit irakurketak kopiatzaileek asonantziaren gatik sortu zituztela uste dugu. Ez dugu harritu behar eskuidazkietan hutsak aurkitzea. Frantzia Voltaire haundiaren eskuidazkiak ortografia hutsez beteak daudelarik garai berean. Gure errezeta hain argia izatea da harrigarria.

Bestalde **Agarik** hutsa ez balitz, oso purgatzaille sendoa izango lizateke, alegia **Agaricus (Psalliota) xanthoderma** Gen. edo **Psalliota nivescens** Moll. perretxiko edo onddo txuriak.

Apotikaria azaltzen delarik berdin bere merezimenduen gorailpatzen hasten da:

Potikairia **250 Ene entzüle maiteak jiten niz züen komünikatzerä eta ene büriaren züer ezagüterazte- ra.**

Ihautiri komeria hori idatzi denean Maulen bazegoen apotikaria eta hortarako ez dugu gizon horren gaizkirik entzungo trufaxetan bada ere. Lehen bertsoan garaiko farmazia leku ospetsuak aipatzen zaizkigu:

Potikairia **252 Armenian izan niz bai eta Italian. Gaüza ederrik eta küriosik ikusi düet haietan.**

253. Droga etselentez hona niz kargatürrik. Han ediren ahal bezain arraroetarik.

Potikairiak hemen berari konkurrentzia egin dezaioken **herri-sendagintza** gaitzesten digu, norik egiten duen "ema txarrek", zer egiten "kristel edo aiuta emaiten", zer droga erabiltzen "ur eta nafar gatz elkarrekin irakiturik":

254 Hanitx presona abil da partikularzki kanpaiñetan eritarzuna etxean eta erremedioa potikairian.

256 Eta bestalde hainitx presona dira abüsatzen, ema txar eli batek beireie kristel emaiten.

257 Bena haien labamentüa zertzaz date(ke) konposatürrik! Uthürri hur eta nafar gatz alkarrekin herakitürrik.

Gainera ema txar horiek ez dute purga, ipurdikoa ondo egiten, ezen ez baitakite aski barrura sartzen ez eta tresna egokia erabiltzen:

258 Bestalde ez düe heltzen labamentüa aski aitzina, zeren eta ez beitäe behar bezala makina.

259 Nik ekarri düet bat zilarrez Indietarik segür beiniz ez dela hiri hontan hulakorik.

Betiko keinuekin gero apotikariak esaten digu, betiko hitzetan nola ipur-zulotik, uzkitik sartu, baina gaineratzen du gero esaldi bitxia, erreglak berriz edo lehenbizikoz ixuraz- teko on dela purga:

Apotikaria **264 Haur düzüela bat neskatilen hon beitäe noiz eta hilabeteen mentsian baitira.**

Gero ez gaixoak baina barberuak errezeta apotikariari aurkezten dio:

Barbera **266 Jauna salütutzen zütüt zure beharrea nüzüt: Jaun medeziak errezeta haur igorten dereizü. (Har eta so egin)**

Orduan, Potikaria pozik dago eta txistuka hasten (hüstü- latzez), gero bere hitzak erabiltzeko bere "drogak" gorailpatzen ditu, hitz horrek gaurko konotaziorik ez daukalarik. Gero erakusteko medikuntzaren hirur ogipidedun horiek elkar laguntzen dutela potikariak eskerrak eta goraintziak bidaltzen dizkio medikuari, bai "elkarri plazer egiten dute"

Potikaria **268 Goraintzi erran izozü otoi Jaun doktorari: beti ekarria nizateala plazer egitera hari.**

Hemen, ordea, ez da ipurditik emango aiuta bat baina ahotik purga bat, eta hortarako urean egosaraziko dira drogak (ez Baküs-ek nahiago lukean bezala ardoan):

Medezia **270 Ekar'zü pinta bat hur eta ezar herakitera eta drogak oro huts bertan hara.**

Agian, ez du medikuak erositako guztietatik libra bat ipi- ñiko, bestelan ore bat, pasta bat egingo luke, baina halaz ere nonbait, **aloea ta haritz-iratze** errizoma oso garratzak izan- ki ez da purga gaixoaren gogoko izango:

Baküs **273 Ala edateko karatxa! Zer infame ezarri düzüe? Ahotik kaka egiten sarri ikusiren naizüe!**

Medikuntza sendaketen metatzeak parrea eragiten due- larik, nahiz gaixoak aitortu etxeko arto terriza guztiak kakaz bete dituela "labamentü" bat, aiuta bat gaineratik jarri nahi dio- te, baina hor legezko-sendakuntza ta herri-sendakuntzatik urruntzen gara, komerian sartzeko aiuta nafar gatzarekin bal- din bada etxeetan bezala, gaineratuko dena behiaren txisa edo gernua, ta bakalauaren ura: hau sorgin errezeta mota bat delarik. Halere, kontuz ibili behar da parre herrikoiarekin zeren askotan galdutako ohitura zaharren burlak izan baili- tezke, eta bakalauaren urak ziurki bere eragina.

Barberen sendaketen prezioa.

Pantzartek laborari bat puñal ukaldi batez zauritu egin du eta hauzitegiak erabaki, apaitu arte barbera ez zela ordaindua izango. Epaitegunean gaude

Substitutoa **785 Barberari errozū jin dadin plagen estatūarekin jaun horiek falta gabe nahi dūela ikusi.**

788 Erradazū orai jauna ekarten dūzūa gizon horren plaga haundiaren estatūa.?

Barbera **789 Bai, jauna, bai estatūa heben dūzū, plazer badūzū ikusi ene sakolan dūzū.**

790 Bena ez dit emanen hura pakūa gabe, zeren eta hanitx jente gaistok trunpatū ūken banaie.

Zaurien "estatūa" ez du epaikariei eman nahi bildurrez ingana dezaten, baina idazkariari ez du dudatuko ematen legezko hizkuntzan idatzia dena ta euskaraz emango duguna:

"Nik baiesten dūt Nudigas Jauna bisitatu dudala, hirur erpuru luze ta lau zabal duen zauria aurkitu diodala buruan, eta burmuineko koroaldetik zastakai edo sabre batek egindakoa dirudiana; nere antzearen arauera bendatu (hersatu) dudana, zauri hori Pantzart Jaunak egin dio ta nere sendaketa-sendagailuentzat zor zaizkit hogeitaz hamar pistola (gero jarraitzen du euskaraz) eta ez bada osatzen Pantzart, debrūek zūtūe eramanen! (Gure itzulpena frantsesetik)

Kirurjia lan horren ordaintzea eztabaidatzen da, eta lege gizonak banku-gutun batekin "lettre de change" batekin ordaindu nahi luke barberua:

Substituto **794 Jauna hogeitaz hamar ez dūzū araez ūkenen bena merexi dūzūna oro deizūt nik emanen.**

795 Jaun jūjeak (epaikariak) dezan ordena jūsto dena berak, gero nik emanen deizūt "letera sanja" bat.

Barbera **796 Hitzak eder dūtūzūe ikusten dūt berala; ene pakūaren esperantxa konbertitzen da paperetara.**

Gero barberuak bere konduaren alde bere gastuak azaltzen ditu, etxe, liburutegi ta ikasketen garestia kontatuz: hola badakigu apotikari horren berri zehatzago; lehenik ingūntū edo gantzūgailu garestia ipiñi bait dio bati zauri baten orbaintzeko:

Potikaria **798 Ez dūzūe zūek pentsatzen drogak kario direla? Ingūntū hau bera kosterik dit ehūn libera;**

Bai; Iruñeako Amenduxeko Joan-ek XVI. mendean egin duen moduan gure zuberotarrak XVIII.ean Montpellier-en ikasi zuten:

799 Eta eskolen egitea Montpellier-eko Unibertsailetan (sic) mila libera zitadazūn kostatzen urtean.

800 Butiga (senda-etxea) ere badiantazūt hamar mila libera eta biblioteka "contant" berrogei pistola.

Bitxi dena, nahiz hauzitegi batean gauden lege-gizon baten etxean izango da, barberua ordaindurik, oraindik Maulen Zuberoako forua jarraituz, etxe-gauza txipiak justiziaz konpon zitezkeela:

801 Jauna jūsto denaz zū izanen zira pakatū: ene etxera jin zite izanen zira satisfatū.

6. Medikuntzaz bildutako testu horien arintziñatasuna.

Jakes de Bela, zuberotar protestante ta aitunen seme abokatuaren lumapean irakur daiteke 1662. bukatu zuen "Tablettes" frantseseko obran lotsagarri ta kondenagarri dituela, - abadeek eta Elizak ohi zuen bezala - dantzak, baina horrez gain Zuberoan egiten ziren maskarada, lhautiri komedia, ta beste jokuak Jainkoari irainak direlako. Beraz XVII. mendean Zuberoan antzerkia bazegoen eta Patri Urkizu-k aurkitu lekukotasunez, **astolaster** hitza garai hartan agertzen da, beraz XVII. m. jadanik ohitura zen holakoak egitea.

Naski frantsesen metodoa jarraikiz, paperetan idatzitako urteguna baizik ez dezakegula kontutan hartu, lioteke, baina badakigu bestalde

1. Hamazortzigarren menderaino ez zutela, gutxitan baizik urtegunik ipintzen etxeetan, gutxiago hilharritan eta jendeek ez zekitela noiz jaioak ziren: beraz paperetan agertzen dena da noiz eman zen antzerkia, ez besterik.
2. Bestalde, tinta zuritzen eta eskuidazkiak laster ezin irakurriak zirelako, mende batetik bestera kopiatzen ziren eta zaharrak ez ziren gordetzen: halaxen Pantzart 1787. antzestua izan zela dakigularik ez dugu garaiko testurik baina haren kopia.

Nolazpait Pantzart antzerkiaren ospea Zuberoatik Biarnora hedatu zen, baina obra hori 1802. urtean euskaratik Biarnoko gaskoinerara itzulia izango da; hortarako Zuberoatik abiatu behar da, hortik ateratzen da Petiri Uhaltekoa Arhane herri txikitik eta Biarnoko Landa-n (Lanne) ezkontzen, Casaurang etxeko primarekin, orduan etxearen izena hartzen du "Casaurang de Lanne": hau dugu, euskalduna izanki ta Biarnoko hizkelkiaz jabetu zena, **itzultzailea eta errejenta**, jakinik ere antzerkiaren izenburua aldatu duela "Mardi-Gras" ipiñiz, alegia, "lhautiri-astearte". Itzulpena ta antzerkia erkatuz, konturatzen da, horrez kanpo, Landako euskaldunak, frantses antzerki bat ta bearnesezkoak erabili ta kopiatu zituela.

Geuri jakingarri zitzaiguna da medikuntza solasaldi horietan ba ote den, zerbait osoagorik bearnes itzulpenean geure

XIX. mendeko kopia beranduan baino. Hor errezeta garbiago idatzia dirudi eta luzeagoa, zeren Casaurang-enean gehiago daude: "manne.gatapuice.salsepareille ta karabe". Bestalde ahapaldi horietan dena berdin dago.

Bearnesak euskararik ez jakiteak, Leonce Pereygne-k **Mardy-Gras** itzulpenaz egin saioari balio asko kentzen dio, baita Uhalte-k egindako hitz jokuak ez ulertzea (adibidez **Urdebury** barona, **urdeburu** dela ez dute ulertzen, ez eta Horticuren-go Justizia Korteia **Hortik ürren**, hortik hurbil dela).

Pantzart-en agertzen zaigun sorgin errezeta parregarrian bearsnes itzulpenak gaineratzen du gure eskuidazkiaz ez dagoena

"**Ara quey la lua**"(Mardy-gras)

"**Oraintxe ilargia on da ta**" (tx. p.)

Bestalde Pereygne teknika irakasle ta Parisen bizituz kartesianismuaren esnetik, agian, gehiagi egozkitua, gatz-purga - guk gaztean hartu duguna ta farmazietan saltzen zena - "herri sineskerien artean" ipintzen du. Gero sorgin errezeta "pixaduna" ematen duelarik Bearsnesak uste du, benetan, garaiko sendagileak ez jakinak zirelako dela gertatzen "La recette du médecin n'est pas mieux dégagée des pratiques des superstitions populaires"

Jakingarri eta baliatu dugu huts hori, komikoaren deskribapen hutsak direnak, benetakoez bereizteko.

Badakigu beraz gorde ditugun astolaster asko XVIII. mendekoak direla eta horiek dira erabili ditudan bakarrak; gero zer esan bategoket bi astolasterrez, beren hizkuntza oso zaharra baita **Ardeatina ta Ludovina, Malku ta Malkulina**, agian XVII. mendean idatzi ziren lehenengoz, edota beren gazte garaia XVII. mendean bizitu zituzten zahar batzuen lumapetik sortuak ditugu. Nolanahi ere hautatu ditudanentzat XVIII. mendeko ziurtasuna daukagu.

Erabili ditugun testu horietan garaiko medikuntzaz jente guztiek zeukaten ezagutza, ta eritzia agertzen da, idazleak dakian guztia diolarik, baina Pantzart-en kasuan ez da dudarik apotikaria, ta barberarekin hitzegin zuela egileak bere testuaren egiteko eta **errezeta begipean**, begien aurrean zeukala aldatu duen lehenak. Holako errezetak gainera etxeetan gordetzen ziren, geuk Barkoixen Peillen-eneko etxean aurkitu dugu garaiko holakoa frantsesez idatzia, baina kantitateak ematen dituelarik.

Berdin Barberuen, medikuen, apotikarien eskolak aipatzen direnean, benetako xehetasunak baditugu, baina guretzat jakingarriena da euskaraz izatea, eta lan honen xedea den ezker etnografia, Zuberoako euskaraz. Naski medikuntza hiztegia aldatu egin da eta aldatzen hasia zen, jadanik, zerrenda honek argiki erakuts dezakeanez eta gaurko frantsesak kutsatu:

potikaria:	farmazient
barbera:	xirurgien
errezeta:	ordenanza
droga:	erremedio
aiuta:	labamentü

Garai hartan sangratü (gaztelaniatik) galtzen ari zen ta seiñatü (frantsesetik) agertzen.

Euskal testu horrek erakusten du, nahiz jendeari, orduko-ari parre eragiteko egina izan eta beharbada berdin farre ta irri egin dezakeala, **benetako XVIII. mendeko** errezeta kopiatua izan dela, eta ekai horietatik erdiak oraindik legezko-sendakuntzan erabiliak direla. Senekasa hutsa naski ez da aurkitzen, izan ere gaurko sendagailuetan Aloe eta Arrabarbarekin agertzen delako.

Herri-sendagintzan, **Arabarba** ostoaren marmelada sabelaren laxatzeko ezaguna da oraino, baina **Haritz-iratzeta** abere sendagintzan bakarrik zerbitzatu da. Beraz sendagailu gehienak farmaziaren giroan gelditu dira, herriak baratzean daukana bakarrik erabiliz eta basokoari ez hala fidatuz.

Bere lehiaren kausa zein den adierazteko, herriaren uste bat azaltzen digu - denbora berean parregarri dena - alegia hesteak gogorturik dituztenak zartatuko direla. Egia da heste okluzio batek, "jentea plega" eta hil dezakeala. Halere jenteen usteetan dago, jendearen gorotzak bere bidea jarraitzen ez baldin badu, kakak odola pozoindatzen duela. Hemen, beharbada, komikoaren gatik zartatu egingo dela ere esaten da.

Gero **aiuta** moduan horiek ematea, gaur ez liteke egin, ahotik hartuko baigenituzke sendagailuak, edo beharbada supositorioetan, baina garai bakoitzak bere modak eta erremedioen hartzeko erak baditu. Aiuta, bai, XVIII. mendeko moda handia izan da, baina zainebakitzek baino gehiago irau du, aldatu gabe, gure haur ta gazte garaieraino.

Aipatü astolasterren topalekua

Denak: Patri Urkizu-k egindako bilduma osoa

- ARDEATINA TA LUDOVINA. Baionako Herri Liburutegian MS 46 eta Baionako Euskal Erakustegiko Liburutegian, Campan-Latsague bilduman. Zaharrena. Pettiarreko euskara. XVIII. m.

B.1.2. Patri Urkizuren bilduman.

- BUBANE TA XILOBERDE. Baionako Euskal Erakustegi liburutegian Campan-Latsague, bilduman MS 10 XVIII. m. Pettiar euskara.

B.1.4. Patri Urkizuren bilduman.

- XIBEROA TA MARZELINA. Bibliothèque Nationale, Parise; Fonds celtique et basque, MS 136. Tx. Peillenen tranzkripzioa, ASJU, XVI, 1982.

B.1.6. Patri Urkizuren bilduman.

- KANIKO TA BELTXITINA. Jakes Oihenarte, Larribarren 1848 G. Arestiren tranzkripzioa, LUR, 1971.

B.1.8. Patri Urkizuren bilduman.

- MALKU TA MALKULINA. Arue, 1807-11-15 Bordeleko Herri liburutegian MS 1695, 21

B.1.9. Patri Urkizu-ren bilduman

- PLANTA TA ELEONORA. Bordeleko Herri Liburutegian MS 1695 23 l. Mozos-en tranzkripzioa, aip. lib.

B.1.15. Patri Urkizuren bilduman.

- PANTZART, Trajikomeria, edo Ihautiri-komeria, XVIII. m.

Bordeleko Hiri liburutegian Mss basques 23. zbk.
 Pariseko "Bibliothèque nationale" M.CB. 135.zbk.
 I. Mozos-en **Phantzart** Iruñea, 1982
 Patri Urkizuren bilduman.

ASTO LASTERRETAN AIPATZEN DEN SENDAGINTZAREN KONDAIRA LEKUKOAK.

Hamazortzigarren mendeko administralarien idazkiak, aurreko mendeetako guztiak baino zehatzagoak dira eta sendagintza politika baten lehen aztarnak dira: medikuntzaz-ko ta demografiako zenbakiak baditugu.

Thillaud garaztar miriku ta Bilboko erakasleak idatzi tesian "*Les maladies et la médecine en Pays Basque nord à la fin de l'Ancien Régime*" liburuak ondo erakusten digu, apotekari, sendagile, barberu ta emagintsak kontutan ikusirik, azken biak zirela ugarietak, nasaietak, Iparralde barruan bereiziki sendagile ta apotekari dirudunen helmenean baizik ez ziren, garestiegi ziren (Lib. aip. 238-239. orr.)

Sendalarien kopurua

a. Apotekariak

Lapurdi ta Nafarroa Beheran zenbaki zehatzak ditugu. Zuberorako, ordea, ez zaigu esaten zenbat apotekari dauden, nahiz zerrendan Joan Batista TIMAY, Maulen eta DARTHEZ Maulen agertzen zaizkigun. Mauleko ospitaletxeak berea ere bazuen. (Thillaud, lib. aip. 142. orr.)

b. Sendagileak

Thillaud-ek hirur ematen dizkigu, guk lau kontatzen: Beltsaguy edo BELTZAGI doktorea, Erregeren sendagile "Lieutenant" a, Maulen, 1767.an gero Thillaud-ek berak ematen dizkigun Maulen Darancet, Domecq ta Belapeyre. (Thillaud lib. aip. 224. orr.)

c. Barberuak

Hemen, berriz beste herrialdeen alderantziz, Zuberoako zenbakirik ez. Bakarrik badakigu 1743.tik goiti Lorraine herririk, bat ordaintzen zuela, eta gero bizpahiruren izenak ere baditugu: Onizepe-an bizi Alexandro Carrere-koa, D. Dupuy Altzürükün dagoena ta Lorraineko, aldiz. Petiri Urruti. Agian ixtudio gutxiago zutelako besteak ez ziren aipatzen kirurjia baino gehiago bizaregile zirelako, agian? Nola nahi ere astolasterren arauera bazeuden Zuberoan. (Thillaud, lib. aip. 115. orr.)

d. Emagintza

"Emagintza" zuberotar hitza darabilagu, andere ofizioaren atzizki "tsa"rekin,, testuek erakusten bait digute, gizonezko batzu ere izan zirela "Emagin", frantsesez "Accoucheur-juré" sendagintza ikasitakoak, eta erakasleak. Hamazortzigarren mende erditan, andere horien, ikasketa-azterketen egitea planteatu zen eta 1786.an Zuberoako berrogei ta seietatik 30 batek, nonbait, gainditu zuen; besteak, erdi-ikasiak edo "basa-emagintza" delakoek lanean jarraiki zuten, beharbada ikasiak bezain ongi edo gaizki. Hona emagintza andere horien izenak eta herriak 1786. urtean.

Aña ABADIE (Onizepea)
 Aña AGUER (Sorhoeta)

Maria APHOUX (Idaunze)
 Maria AIZAGUER (Barkoixe)
 Maria BARNECHE (Sorhoeta)
 Isabela BETHULAR (Xarrikutapea)
 Graxi BIDAULI' (Muskildi)
 Graxi BIHITA' (Altzürükü)
 Maria CARRICABURU (Atarratze)
 Maria CARRICABURU (Ainharbe)
 Joana CASAMAYOU (Muntori)
 Maria CHOCOT (Mendikota)
 Maria DARROTCH (Barkoixe)
 Graxi DALHABE (Altzabeheti)
 Maria DE CARRICART (Sorhoeta)
 Kattalina DE CHOCO (Bildoze)
 Kattalina D'URRUTI (Lorraine)
 Kattalina EIHERABIDE (Domintxaine)
 Joana ELISSABE (Lorraine)
 Joana ELISSALT (Mendikota)
 Margarita ELISSALT (Zunharreta)
 ERRECALT BORDA (Barkoixe)
 Maria ESPIL (Zalgize)
 Maria ESPOUEY (Maule)
 Maddalen ETCHART (Mendi)
 Kattalina ETCHEBERRI (Santa Crazi)
 Maria ETCHEBERRI (Astüe)
 Maria ETCHESSAR (Irabarne)
 Adriana ETCHETO (Garindaine)
 Aña IRATCHET (Etxarri)
 Maria LARRANDAGORRI (Lorraine)
 Maria LARETSENBORDA (Lohitzune)
 Maria SALDUNU (Urđinarbe)
 Maria TILLAC (Atarratze)
 Maria VIGNERTE (Urđinarbe)

Beraz 69 herri ta herrixka, 69 parrochia zeuzkan Zuberoak denetara 46 emagintza ezagunak, hamazortzigarren mende erditsu hartan. (Thillaud, lib. aip. 135. orr.)

Egoera eta jakituri mailak.

Apotekari, izateko, oraindik XVII. mendean nahikoa zen sendagile batek hautatu bi droga nahasketen egitea - naski hortarako eta herri-sendagintzan agertzen diren belarrak erabiltzen ziren, baita hamar bat mineralki eta animalietatiko ekaien - ezagutza hori gabe ere ezin egin azterketarik. Gero apotekaria sendagileari lotua gelditzen zen, ezin zuen berez errezetarik egin, bakarrik sendagileak idatziak saldu behar zituen.

Hamazortzigarren mendean sendalari guztientzat estatu- to hestuak eta arau gaitzagoak idazten hasi ziren, baina, Baionako Hiri liburutegia erre denean, hiri hortako esku-idazkia erraustu egin zen, joan den mendean (Thillaud, lib. aip. orr.).

Sendagileak. Hauek ziren Fakultatetatik igarotako baka- rrak Montpellier-en ikasiak askotan, baina haien artean hier- rarkia zegoan hala nola sendagile nagusi zen Erregeren send- agile ta Lieutenant zena, nolabait sendagintza politikaren eragile, erakaste ta berriemaile zena, hala nola Beltzagi, Maulen.

Barberuak, badirudi bi motakoak zirela, arruntak gehie- nik bizar ta ile mozteari emanak eta Barberu-maisuak kirurji- lari ere. Denek ofizioa apendiz izanaz zaharragoaren etxean ikasten zuten, gutxitan ospitaletan? Eskulangile onak izatera

irixten ziren, gaurko "danatuen" moduan, baina azken horien alderantziz ebakuntzak ere egiten zituzten?

Apotekari ta sendagileek baino arrakasta gehiago omen zuten (ik. *Thillaud* lib. aipa; 116. orr.), nahiz ez zen askoz merkeago sendagailu erosterik ez zegoen askotan. Pantzart, astolasterrean hierarkia hori ondo azaltzen zaigu eta bakoitzak lanpideez zeuzkan mugak ere. Barberuak eri behartsu askorekin eta sendagile apotekariak eri aberats gutxirekin, ondo bizitzera heltzen baziren ez ziren asko aberasten, hirietatik kanpo. Thillaud-ek dio 1751-1786 bitartean mediku kontu bat baizik ez duela aurkitu.

Emagintsek denbora zaharretan "zaharragoekin", etxe-koekin egiten ziren, zeren XVI. menderaino gutxienik baitakigu emakumeek ez zutela beren gorputza gizonezkoen erakusten beraz "sendagile haundiak" gizonentzat zirela bakarrik, andereek beren gisara sendatzen zirela, Fakultatetik kanpo ikasitako "sendagileak" ta "barberusa" batzuekin. Emagintsa horren ondarra da. Emagintsek hamazortzigarren mende erditik goiti, zinegotzi edo Emagin nagusi baten aurrean igaro behar zuten, beren gaitasuna erakusteko. Baina Euskal Herrian luzaro, katolikotasun ta moral agiria -erretoreak, apezak emana - aski zen. Gero Barberu maisu batek taula batzuen bidez erakaspenak ematen zituen eta Zuberoan behintzat 1786. Beltzagik aztertu zituen.

Nola nahi ere emagintzak erditzen lagunt zezakean andere bat, baina kasu txarretan, barberua edo sendagileak deituz. Badakigu ordea, Wien Austriakoan izan zen eztabaida puerperal sukarrari buruz, eta nola sendagileak erakutsi zuen, laguntzaileen zikinkeriatik zetorrela: garai hartan Bartsh sendagilearen zerbitzuan % 80 andere, erdigaitzak hiltzen ziren, sendagile ikasleak haietan trebatzen bait ziren zikinki eta bortizki ari izanaz, eta hori Europa guztian hala zen emazteak gehienik haur-sortzetik hiltzen bait ziren; haurra hiltzen zelarik, halere, sekulan ez omen zen emagintzari errua botatzen - haz ahal baino gehiago - haur baitzen.

Asto lasterretan arazo guzti horiek aski zehatzki emanak nahiz parre-bazka - idatziak aurkitzeak asko lagundu gaitu eta lagundu gentzake. Thillaud-ren tesian txertoaren eztabaida (187. orr.) agertzen zaigu 1771. urteetan, Europan 1725.an hedatzen hasi zelarik, eta astolasterrean azaltzea jakingarria zaigu, 1787.an.

Thillaud-ek deskribitzen digun, sendagintza-jakintza-maila asto lasterretako berdina da. **Gaitzaren desegiteko**, ez jatea, mina hazten baitu, sukar kentzaileen erabilpena; gero **gaitzaren kanporatzeko**, pixeragileak, purgak, odolhustuketak. Badirudi astolasterren egileak, lagunak eta adiskide haundiak zituztela sendalarien artean, hain zehatzak izateko.

Jakingarria zaigu nola kontaktatzen digun Thillaud doktoreak, hemezortzigarren mende erditan, Baionako sendagileen estatutoa agertzen den, nola barberuek ez zuten gain maisutasuna nahikoa lanean aritzeko "agregatio" eskatzen zitzaie eta nola agregazionaren emaitako ahalmena Baionako barberu-nagusiei kendu zieten, Bordeleko maila baino askoz apalagoan baitzegoen azterketaz eta irakaspenez; gero E. Goyheneche-k erakutsi bezala Be-Nafarroan barberuek, edota barberu nagusiek estatutoa idazten dute; hor, beraz, eta astolasterretan agertzen zaigu, herri-sendakuntza ta fakultate sendakuntzaren arteko etendura bat egiten dela.

Dakigunez eta Aguerre oraingo ezur zuzentzaileak esan digunez hemeretzigarren mendea eta hogeiaurreko lehen erdia, auzi garaia izango da, alegia, "basa-bedeziek" "sasi sendalariak" egiazko kalte egiten dietela. Pantzart astolasterrean argi dago zegatik ere fakultatetik igaro zirenak beren ofizioaz bekaitz zeuden: lehenik ikasketak kostatu zizkietelako, bigarrenik liburutegi garestia erosi behar izan dutelako, eta barberuak dio "lokala" ere, ezen badakigu eta Barberenea etxe-ek erakusten digute, eriak batzutan barberuen etxeetan klinika batean bezala gelditzen zirela, sendagileen etxeetan ez hala. Beraz Erregeak diplomatu "breveté" horiek legea beren alde jarri nahi izango dute, lehenik beren interesak zaintzen, nahiz dioten gaixoen onetan dabiltzala, batzutan arrazoekin.

Beraz, dirudenez, hemezortzigarren menderaino, herri-sendagintza ta fakultate sendagintzaren artean harremanak baziren, eta gure ustez, hemeretzigarren mendeko aitzinamendu edo aurrerapenetara baino leheneko sendagintza horiek ez zuketan ezberdintasun haundirik. Bakarrik, bazterrean zeuden aztiakeriazko erabilkak, baina aurretik esana dugu J. M. Barandiaran ta besteek nahikoa ondo ikertu dituztela gai horiek (Zuberoan, ik. "Liginagako inkesta in Eusko-Jakintza .J. M. Barandiaran").

Kontu hortan lau libera ta 80 sos agertzen dira, baina Maulen 1709. apotekari kontuan garestiako da, eta gure arbasoek bizpalaur hilabeteren buruan ordaindu zuten (Barkoixe Peillen-eko esku-idazkiak); berdin astolasterrean agertzen den kontua, interesgarria da, alde batetik agertzen baita ez barberu arrunta baina Montpellier-en ikasitakoa, eta zenbat kostatu zaizkion ikasketak, liburutegia, denda eta (ik. astolasterrek).

Herriek sendalari batzuekin kontratuak egiten zituzten eta oinarrizko urte-saria, batzutan herri txikietan haundietan baino gehiago zen (50. Baionan, 54. libera Larrañe) halere gero "bezero" gehiago zeuden ezker hirian eta osasunez jendeak gaizkiago (ik. *Thillaud* lib. aip. 224. orr.) azkenean gehiago irabazten zen hirian; gero militar sendagileek, beren lana gehienik, eritetxean egiten zutelako urte saria 500 liberakoa izaten zuten, bai garai berean.

Fakultate sendagintza horren garestitasunak, orduan eta gure Segurantzearaino garrantzi handia zeukan herri eta etxe-medikuntzaren arrakastarako, begirapenerako, baita zaharkitutako sendabideen gordetzeko ere; horregatik behar bada - jakintzaren onean? Gaixoen onetan? Beren ogipidearen alde? - d'lhartz bezalako sendagileak liburu bat idatzi zuen, tamalez izenburua baizik ez dauka euskaraz *Mirikuntzaren gaineco populiaren faltak* azpimarratzen duela-ri **eskutari ta Erregeren miriku** dela.

Baliman, maiz entzun dugun bezala "faltak" baziren eta "baratariak" baina sendatzaileen artean ere, erdi-ikasietan ere onak eta txarrak izango ziren, sendagileetan bezala. Eta nork daki gaurko sendabide "zientifiko" batzuek ez ote diren datorren ehunkian "faltak" izango?

Garestitasuna (kariotarzuna) izan bada, etxe sendagintza ta herri sendagintzaren begiratzeko arrazoi bat, besterik dago lehenik, XVIII. mendean, fakultate sendalarien porrotak ikusi ta bada non bildurtu, bestalde barberak eta beste eta sasi-sendalariak ez dira hobe, beraz ez da harrigarria **Pantzart** astolasterrean erraten bazaigu, herritarren ahotik, zer pentsatzen zuten sendalari guztiez:

**Jinen da barber txar bat ere
espedientziaz beterik
gure etxen baita asto bat
hanitx abillagorik.
Medezi, potikaire,
oro abill uste segürki
eriak beitütie zapartarazten
ezin haboro prunki.**
(Pantzart, lib. aip.)

Askotan esanik izan da, Aintziñatean hasita, Erdi-Haroan gaindi, komerietan sendalarien trufa higatzeraino erabili dela, sendalariak astoburu bezala harturik, baina berriz esan dezakegu herriari parregarri zitzaiola, holako prediku ilunak latinez edota euskaraz entzutea, eriak sendotzeko gai ez zirenen ezpainetatik: hor dago parregaia teoriaren eta praktikaren arteko leizean.

Herri-sendagintzaren kontserbatzeko zioen artean dudarik gabe ekonomia badago, eta bereziki Europa gehienean XIX. mende erditaraino, jendeen % 80 baserrian bizi zelako ta belar-sendagintza bat zelako herriaren sendagailuen iturri: edonork lur txikia izan ezker ta baratz ertz batean, landatu zetzakeen senda-belar nahikoa etxeko sendagintzan zerbitzatzeko. Gero apotekariak, berdin senda-belar askoz baliatzen zirela jakiteak jendeak bere belar erabilpenean indartzen zituen.

7. Euskal testuen oinarri batzuz:

7.1. Mauleko Ospitale Orokorra.

Nora joan zitezkean zuberotar gaixoak XVIII. badakigu eta goizago ere legezko medikuntza Zuberoan lekutua zela. Hamaseigarren mendean hasita, Maule-k Ospitalea zeukan edo hobeki esan Ospitaletxea "Hospice" izenekoa. Parropiako erretorea zen haren buru, lau zinegotziz lagundua. Berrehun urteez goiti eta 1742.raino iraungo du **Mauleko Ospitaletxeak**.

Gero Urdiñarbe beste Ospitaletxea ere bazegoen handiagoa, zaharragoa ta Santiagobidekoaren ondokoa, XII.m.koa oraindik 1708. urtean, hirur-lau mila liberaren errenta zeukan; inguruko herrietan etxeek ordaintzen zioten diru sartze hori, baina XVIII. hasieran diruak ez ziren jatorrizko xedetara heltzen, eta Ospitaletxe horrentzat erabiliak ez izatez, **Urdiñarbeko Ospitaletxean** eraikuntza erortzen hasi zen. Hau ikusita Urdiñarbeko administrazailuek; dena Maulera aldatzea pentsatu zuten eta 1715.an urtarrilaren 7 an, Erregek onartzen du aldaketa eta hortarako "lettres patentes" gutunak ematen.

Mauleko ta Urdiñarbekoa bat egin nahi dituztenean Mauleko etxea txikiegi gertatzen da ta hogeitabi urte iraungo duen eraikuntzaren buruan eraikia izango da **Mauleko Ospitale Orokorra**, Mauletik Atarratzera irtetzean, oraindik kan ikus daitekena, zaharetxe bilakaturik.

Harrigarriena da nola XVI. menderaino Orreagakoa zen Urdiñarbeko Ospitaletxea, Allande Maitia, Oloroneko zuberotar apezpikuaren eskutara igaro zen eta orduan hasi erortzen, Garindaine, Idaunze, Bildoze, Mendi, Muskildi ta Urdiñarbe-k beren detxemak ordaintzen jarraitzen zutela beren 3000 libera. Maitiaren garaian ez da, orduan, batere

konturik agertzen eta dirua nora joan den jakin nahi lukeanak, bilatu behar luke zer dirurekin - zapetegile seme horrek - Maulen Bepizkundeko jauregi eder hori eraiki zuen. Behartsuen ta gaixoen kostuz izan bada ere Zuberoako hiri-buruan, eraikuntzarik ederrena da; gaur, geure diru ta erosotasun guztiz ez dugu horrenbeste egin ez jauregi eraikuntzan, ez eritegi bat egiten hiri hortan.

Gomendategia ospitaletxea baldin bazen, Ospitalepekoaz ez dakigu ezer - ostate hutsa ala? - eta Berroetako gomendategiaren lekuan eraiki da XVIII. mendean Ospitale Orokorra, orain ikusten den lekuan.

Zer garrantzi zeukaten herri-sendakuntzaren hobetzean ez dakigu? Garaiko sendakuntza - Erdi-Haroan, Santiago bide garaietan - ez baitzen hain gorakoa, baina halere bitxi da nola Jutsi ta Izura, erromeria bide nagusian zeudelarik, bi herri hortatik ateratzen direla sendazale dinastia sendoenak. Izura-tik ateratzen zaizkigu gaurko daunatua guztiz gehienak eta Izuran dira bat egiten Frantzia ta Europa Iparraldetik zetoan hirur bide nagusiak. XIV. mendean Agerre daunatuen etxea bazegoen Izuran, eta ez dakigu ordea, ordudanik Zuberoan lan egiten zuten, geroago egingo duten antzean.

Orduan 1737.an eritegi hori bukatu zenean, hararte laioek zeramaten, betidaniko zerbitzua (hiru Ospitale) seroretara igaro zen, **Zuhurtzearen Ordenak**, Erizain lana hartu nahi zuelarik. Handik bost urte 1742.ko Maiatz 1ean bi ospitaletxeak bat eginik Eritegi Orokorra bere izena ematen zaionean eta handik hamaika egunen buruan, hamabi kideez osatu Zuzendaritza bat "arrest"-ez osatzen denean, eztabaidak sortzen dira Zuzendariaren eta Serora nagusiaren artean, ta elkarrekin "gaizki-jinik" serorak badoatz.

Seroren ondokik erizain lana hiriko "andereñoek" egingo dute, baina zerbitzu moeta horren gorabeherekin asperturik, 1755.an Azaroaren 25.ean, Nevers-eko serorak deitzen dituzte ta eritegi hortako zerbitzua berrehun ta hamar urteez eramango dute, esan nahi baitu gure lehengusu Irigaraitarraren bisitatzera joaiten ginelarik, ez du aspaldi, lanean ikusi ditugula.

Ospitale orokor hortan XVIII. mendean, medezia (sendagile) ta barberua badaude (xehetasun gehiagorentzat irakur P. L. Thillaud dr. are *"Evaluation de l'équipement sanitaire du pays Basque Nord au XVIII éme s."* in B.M.B. Baiona, 1981, 91. zk.).

Horregatik ere astolasterretatik kanpo, joan den mendeko maskarada guztietan hirur pertsonaia agertzen zirelarik: Barbera, Photikaria, Medezia, ez zen literatura hutsa baina garaiko bizitzaren ispilua erakusten eta trufatzen zena. Ospitalean ez da apotikaria azaltzen baina, gure etxondo paperetan Barkoixe Peillenenean 1709. mauletari apotikari baten kondua aurkitu dugu eta ikusiko dugu.

7.2. Hamazortzigarren mende hasierako erremedio kondua

(Gure itzulpena)

Barkoixeko Peillen jaunaren etxean hornitu sendagailuak

Barkoixeko Peillen jaunak, 1709.ko Irailaren 8 tik bere alaba Grazi eta bere morroinarentzat

- lau ontza limon xarabe, bitriolu apur batekin	1,05 lib.
- gehi pinterdia edari bizkorle	3,05

- gehi (.) cristal Minval, ontza bat	0,85
- gehi, Errege tisanatik, laur hartze	4,05
- gehi hartarako bidaia	0,05
- gehi alabarentzat (.) erremedio, laurdena	1,45
- gehi seigarrena sukargaltzeko uretik	2,05
- gehi, sei ontza mitxoleta xarabe, bitriolu pittin batekin	1,05
	13,35 lib.

Beste esku batez, azpian apotikariaren ordain-baiespena "Maulen, 1710.ko urtarrilaren 30.an, kondu hortaz ordaindua izan naiz".

Ezin irakur daiteken izenpetzea, app-re, apotikari laburpenarekin gaineratzen du (ikus frantsesezkoaren fotokopia).

Eskerrak eman behar dizkiet nere leinuruko eskazi zuhurrei, ezen hau eta beste holako testu zahar jakingarririk gorde diguten, Barkoixe Peillenenean.

Beraz jadanik XVIII. mendean ez ziren marranta handia zeukatenean, etxe erremedioez eta etxe-sendakuntzaz askiesten - dirua zeukatenean - sendagilea ikus eta apotikariaren gana joaiten ziren.

Erremedio horien artean batzu apur bat ilunak dira zer den "Tisane Royale" hori, zer estaltzen du "eau fébrifuge" ur sukar hiltzaile horrek eta "potion cordiale" edo "edari bizkortzaile" delakoak.

Bitrioluaren aipamenak ez gaitu txunditu behar, hamazortzigarren mendean sulfata guztiei halaxen esaten zieten, xarabe edo "sirop" baten egiteko Magnesio, Zink sulfata balia zitezkean edo sulfato organikoaz.

Lur gogorragoan ibiltzeko, lemoiarene erabilera ez tularentzat eta Mitxoleta lorearenak ziurrago zaizkigu. Lehenik *Citrus limonum* Riss Aintziñatean hasirik erabilia bere azido maliko, zitriko, bere potasio ta kaltzio zitratoekin C Bitamina, oligo-gai, flabonak, gatz mineralak eta beste kontutan harturik; naski sukarraren eta mikrobioen aurkako erremedio hauta.

Mitxoleta berriz, *Papaver rhoeas* L. izerdierazteko, ez tularen lasaitzaile, ematzaille, baita beraren espasmuen kontra-koa da, bere alkaloideren bitartez. Biak beti erabiliak dira.



ALBERTO MAGNO ETA BESTE

(Bidave batek kopiatu erregeta bilduma)

Pariseko Bibliothèque nationale delakoan eskuidazkien kalatogoan (celtique basque): 117, celt. b.

SENDAKUNTZA ZAHARREKO ESKUIDAZKI ARGITARAGABEA

Pariseko Nazio Liburutegian, Eskuidazkien Gordategian 117. zbk. daukan bilduma badago, Donapaleuko Bidave baten izena dakar eta Urdiñarbeko hargin baten ex-libris bat "J' appartiens à Andrau Gohaneix maçon à Ordiarp".

Bilduma osoak lau testu dakarzki, Anton Abbadie, Urrüstoikoak, euskaltzale ta liburuzaleak "Recueil de recettes" izena ipiñi dio. Agian Bidave horren eskutik irakurtzen da "finis coronat opus" azkenean, eta urteguna "10 février 1819).

Zati horietatik bat da Landareetaz, beste bi Fisiognomonía ta Konplexionez ta laugarrena, argitaratu nuena "Harri preziosen bertuteak". Laugarren horrek erakutsi zidan bidea eta iturria, horregatik Baionako **Bulletin du Musée Basque** hortan, 74. zbk. eta 127-140 orrialdeetan argitaratu zidatenean, izenburu bezala ipiñi nuen "Alberto Magno euskaraz".

Hemen ondok emango ditugu Fisiognomonía, Konplexioneak eta Harri preziosen erabilera sendakuntzan. Urrunago ikusiko dugu, Xarles Videgain-ek egin inkesta batean zenbateraino herrian sartu ziren jakituri horiek, berak bertsolari baten ahotik bilduko baititu - harek ordea "Compost des Bergers" delatik hartuak izan direla eraku-tsi du, baina hemen zuzenean eta testu askoz luzeagoan, Alberto Magno-ren gaztelaniazko lan itzulpena da iturria.

Bidave Donapaleutarrak bere kopia egiten duelarik eta Gohaneix-eri saltzen, aurrean dauka XVIII. mendeko zübereraz idatzitako testua eta letra eder batekin aldatzen digu - aldatzen diot zeren bera Zuberotarra ez izanki hitz batzu ez dituen ulertzen eta beste batzu ondo kopiatu ondoren - adibidez **mahats ardu** - benafarreko itxurapean **mahats arno** ematen baidizkigu, halaber "beste", idazten du eta beste behin, ezinbestean **bertze** bere euskalkian bezala. Batzutan **sujet suiet** "manexten" du, eta **jale/iale**.

Txarrena da letra eder horren estalkipean zenbat huts egiten dituen, zati batean jendeen izenak aldatzen dituela, bizpahirur bider emanaz, Misaldo eta Micaldo berdín izen arruntekin; hitzak bukatu gabe uzten ditu eta nola nahi idazten, balsamu, balsamo, baitsamo zati berean eta abar. Hala axalezko huts gehienak gure transkripzioan zuzendu ditugu, jatorrizkoan irakur ditezkenak eta batzuk beren (sic) ekin utzi, zaharkeria bat, euskalkikeria sala balezate ere.

Hizkuntzaren aldetik beharbada Bidave-k kopiatzen duena bi eskutakoa da, zeren **Erremoliaz** diona, **Harri preziosez** diona baino hobea baita eta azken hau "konplexioneaz" diona baino askoz hobea. Pettiarreko zubereraz da batzutan "hüillen" (Basabürüan hüillan) halere gehienetan **-ian** dipton-go ez da **-in** laburtzen gaurko Pettiar euskararen egiten duen moduan, eta hori XVIII. mendeko seinalea da hala nola **-uan** ek ez baitu oraindik **-un** eman. (Juan, arduan eta abar.) Hizkuntza hori XIX. mende hastepeneko gehienekin konparatuz, oraino zahar usaina gorde du, baina ez da XVII. mendea baino zaharrago Bidave-k begien aurrean eduki duen bildu-